



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jesus, zuk diozunez gero, botako dut sarea”

2022ko otsailaren 6a
Urteko 5. igandea (C)

Lukas 5, 1-11.

Behin batean, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren mezua entzuteko; Jesus Genesaret aintzira-ertzean zegoen. Eta bi ontzi ikusi zituen ur-bazterrean: arrantzaleak, ontzitik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen bietako batera, Simonenera, eta ontzia lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion; gero, eseri eta jendeari irakasten ziharduen ontzitik. Hitzaldia amaitu zuenean, Simoni esan zion: -Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako.

Simonek erantzun zion: -Maisu, gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; baina, zuk diozunez gero, botako dut sarea.

Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak puskatzeko zorian zeuden. Beste ontziko lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; hurbildu ziren eta bi ontziak ia-ia hondoratzeraino bete zituzten. Gertatua ikusirik, Jesusen oinetara erori zen Simon Pedro, esanez: -Alde niregandik, Jauna, bekataria naiz eta!

Izan ere, zur eta lur zeuden eginiko arrantzuagatik Pedro eta beronekin zirenak, bai eta Pedroren arrantzu-lagun Santiago eta Joan Zebedeoren semeak ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: -Ez beldurtu, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara. Ontziak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

“Ontziak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten”

PEKATUA AITORTU

Jose Antonio Pagola

Galileako aintzirako mirarizko arrantza oso herrikoia izan zen lehen kristauen artean. Ebanjelari batek baino gehiagok dakar pasadizo hori, baina Lukasek bakarrik erantsi dio eszena hunkigarria, zeinetan Simon Pedro, aldi berean fededun eta bekatari zen ikasle hura, baita protagonista.

Fede-gizona da Pedro, Jesusek liluratua. Bere esperientziak berak baino indar handiagoa dute harentzat Jesusek hitzek. Ondotxo daki Pedrok inork ez diola ekiten aintziran arrantza egiteari eguerdian, batez ere gaez ezer harrapatu ez badu. Baina Jesusek agindu dio eta Pedrok konfiantza osoa du harengan: «**Zure hitzean finkatuz, botako ditut sareak**».

Aldi berean, bihotz egiazalea da Pedro. Lorturiko arrainketa izugarriaz harriturik, «**Jesusen oinetara erori da**» eta berezkotasun miresgarritz diotso: «**Aldendun nigandik, Jauna, bekataria bainaiz**». Guztien aurrean aitortu du Pedrok bekatari dela eta ez dela gai inolaz ere Jesusen ondoan bizitzeko.

Jesus, ordea, ez da izutu bere ondoan ikasle bekatari bat izateaz. Aitzitik, bere burua bekataritzat badu, hobeto ulertu ahal izango du Pedrok Jesus: guztientzat barkatzaile dela eta bekatarientzat eta desiragarri ez direnentzat abegikor. «**Ez beldur izan. Gaurdanik giza arrantzale izanen zara**». Ikasle bekatari izatearen beldurra kendu dio Jesusek, eta bere misio-lagun bihurtu du, era guztietako gizon-emakumeak elkartu eta Jainkoaren egitasmo salbatzailean sartzerara deitzeko.

Zergatik egiten dio hain gogor Elizak bere bekatuak aitortzeari eta bere konbertsio-beharra agertzeari? Jesu Kristorena da Eliza, baina Eliza ez da Jesu Kristo. Inork ez du zertan harritu Elizan bekatua izateaz. «Santua» da Eliza, Jesusen Espirituak eraginik bizi delako; baina «bekatari» da, hainbatetan Espiritu horri aurre egiten eta ebanjeliotik urruntzen delako. Fededunen baitan eta erakundeetan dago bekatua: hierarkia baitan eta Jainkoaren herrian; artzainen baitan eta kristau-elkarteetan. Guztiek dugu bihozberritu beharra.

Oso gauza larri da egia ezkututzen ibiltzea, bihozberritzeko eta berritatzeko dinamikan konprometitzera eragozten baitigu. Bestetik, ez ote ebanjelioaren antzekoagoa Eliza ahul eta zaurigarria, bere bekatua aitortzeko adorea duena, bere miseriak munduaren aurrean nola ezkutatu, alferrik eta lortu ezinik, ari dena baino? Ez ote sinesgarriago gure elkarteak Kristoren zeregin ebanjelizatzailean ari direnean, beren bekatuak apal-apal aitortuz eta beti ebanjelioaren antzekoago biziera egiten ahaleginduz? Ez ote dugu gaur ere zer ikasi handia Jesusen oinetan bere burua bekatari aitortu duen Pedro apostoluagandik?